




BALMASEDA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Hondo gorrian hiru begiko zubia, uhin urdin eta zilarrezkoen ganean, eta zubian dorre bat urrezko bi lehoik eutsita, alde bakoitzean bat.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO


En campo de gules, un puente de tres ojos, sobre ondas de plata y azul, y en el puente una torre con dos leones tenantes de oro, a los lados.

AITAMEN HISTORIKOA

Enkarterrietako herrigune garrantzitsua, eta Jaurreriko uririk zaharrenetarikoa. Gernikako Batzar Nagusietan zazpigarren botua eta eserlekua eukazan. Daukaguzan barrien arabera badakigu erromatarren garaian be bazala herrigune hori, eta garai haretan Burgosera joian bide erromatarren lotune izan zan. 1199ko urtarrilaren 24an Lope Sanchez de Menak, bere seme Diego Lópezen baimenagaz, uri titulua eta Logroñoko forua emon eutsazan.

Hainbat gerratan hartu eban parte; Alfonso X.a Gaztelakoak, bere erregealdiaren hasieran, garaitu egin eban uria. Handik gitxira barriro ipini eban Lope Díaz de Haroren eskuetan, eta 1256ko martiaren 24an berretsi egin zituan uriaren askatasuna eta 1199ko foruak.

Uriaren askatasuna, foruak eta pribilegioak 1308ko zezeilaren 8an baieztatu ziran; 1308an Balmaseda barriro be Diego López de Haroren eskuetara pasatu zan, eta gainontzeko eskualdea Juan infantearen eskuetara.



RESEÑA HISTÓRICA

Importante enclave de población de las Encartaciones y una de las más antiguas villas del Señorío, en cuyas Juntas Generales de Gernika detentó el séptimo voto y asiento. Su antigüedad se sigue hasta la época romana, en la que Balmaseda fue núcleo de enlace de la vía romana con Burgos.

En 24 de enero de 1199 adquirió título de villa y fuero de Logroño a través de don Lope Sánchez de Mena, previa autorización de su hijo Don Diego López.


Villa con densa trayectoria belicista, fue rendida, a comienzos de su reinado, por Alfonso X de Castilla, quien la restituyó en breve a Lope Díaz de Haro, ratificando en 24 de marzo de 1256 sus libertades y fueros de 1199.

Las libertades, fueros y privilegios de la villa se confirmaron el 8 de febrero de 1306; en 1308, Balmaseda fue restituida a Diego López de Haro y el resto de la demarcación pasó al infante don Juan.

IKURRIÑA

Deskribapena: XIX. mendeko zutoihala karmin koloreko saten ehunezkoa (ez dakigu zelan eskuratu zen). Aurrealdean uriaren armarrria dauka bordatuta, harriz koroatua eta marginetan urrezko hariz jositako erroleoak. Atzealdean urrezko hariz bordatutako inskripzioa: “Ayuntamiento / de / Valmaseda”. Inguruan beilegiz jositako erroleoak. Alboetan urrezko flekoak eta erpinean borloi handi bat.

Ikurrak: alkatearen makila, historia ezezaguna dauana, hurretxez egina, 85 cm.koa. Heldulekua urrezkoa, zilindrikoa, inskripzio hau daukala: “Alcaldía de Valmaseda” eta erdian uriaren armarrria. Kordoi baltzak eta urrezkoak ditu, muturretan pinaburuakaz, 2,5 cm.ko txurroa.



BANDERA

Descripción: estandarte del siglo XIX en raso carmesí, forma de adquisición desconocida. En el anverso, escudo bordado de la villa, coronado con piedras y roleos bordados con hilos dorados en los márgenes. En el reverso, leyenda bordada con hilos dorados “Ayuntamiento / de / Valmaseda”. Alrededor, roleos bordados en amarillo. Tiene flecos dorados laterales y gran borlón en el vértice.

Emblemas: bastón del alcalde, de historia desconocida, realizado en avellano, de 85 cm. Empuñadura dorada, cilíndrica, con la inscripción: “Alcaldía de Valmaseda” y el escudo central de la Villa. Posee cordones negros y dorados, rematados en piñas. Tiene regatón metálico de 2,5 cm.